

# Laneko barneko indarkeriaren aurkako prebentzio eta esku-hartze protokoloa

## Bilboko Udalaren Zero Tolerantzia Politika laneko barneko indarkeriaren aurrean

### 1. Sarrera

Laneko indarkeriatzat hartzen dira, eraso fisikoez gain, ahozko, idatzizko edo keinu bidezko jokabideak, baldin eta langileak errespetatzen ez badituzte, haiek aintzat ez hartu, gaizki tratatu, umiliatu, intimidatu, iraindu, mehatxatu edo jazarpena eragiten badiete. Halaber, indarkeriatzat hartzen dira jokabide jakin batzuk, haien helburua norbait sozialki bakartzea bada, edo haren izen ona, profesionala zein pertsonala, zuzenean edo erabiltzaileen bitartez zikintzea, edo sexualki edo sexu-arrazaioengatik eraso egitea.

Pertsonak, lanean, indarkeriaz joka dezakete lankideen aurka, eta arazo hori erakundearen barruan bertan konpondu behar da, laneko segurtasun eta osasunerako arrisku larria baitakar.

Gainera, langileek eskubidea dute laneko arriskuen aurrean babesa edukitzeko, eta, hain zuzen ere, Laneko Arriskuak Prebenitzeko 31/1995 Legean eta laneko jazarpenari eta indarkeriari buruzko 2007ko apirilaren 26ko Europako Esparru Akordioan aipatzen dira arriskuok. Horregatik, Bilboko Udalak, bertako langileek, haien ordezkari sozialek eta Bilboko Udal Erakundearen Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuak konpromisoa hartu dute lanean jardunbide jakin batzuk sustatzeko, hartara barneko indarkeria psikologiko eta fisikoa prebenitzeko, eta, hala badagokio, desagerrarazteko. Helburu horiek betetzeko, lankidetza eta adostasuna funtsezkoak dira; izan ere, politika egoki bat diseinatu eta ezarri behar da, lanean barneko indarkeriaren arriskua ahalik eta txikiena izan dadin.

Politika horrek Bilboko Udaleko langile guzti-guztientzat balio du, edozein izanik ere haien Udalarekiko lotura (karrerako funtzionarioak, bitartekoak, laneko finkoak edo behin-behinekoak, aldi baterakoak, praktiketakoak, kargu politikoak eta abar). Lotura horren iraupenagatik ez da bereizketarik egongo, eta enpresa-jardueren koordinaziorako esparruan azpikontratatzaren diren langileentzako ere balio du, Laneko Arriskuen Prebentziorako Legeak adierazitakoarekin bat etorriz.

Barneko indarkeriaren aurkako politikak ezartzen du, halaber, zein prozedura baliatuko den langileak nozitutako gertakaria kudeatzeko, eta gertakari horrek langilearengan izan ditzakeen eragin fisiko edo psikologikoak gainditzen laguntzeko.

### 2. Zero tolerantzia

Bilboko Udalak *Zero Tolerantziako Politika* du laneko barneko indarkeriaren aurrean: ez da inolako indarkeriarik onartu ez justifikatuko, eta behar diren neurri guztiak hartuko dira indarkeriako jokabideak desagerrarazteko, eta langileen osasuna eta eskubideak babesteko.

## **Barneko indarkeria prebenitzeko Ebaluazio Batzordea**

Horretarako eratuko den **Ebaluazio Batzordean**, martxan jarriko diren prebentzioarako programen jarraipena, kontrola eta hobekuntza egingo dira.

Batzorde hori eratuko dute Giza Baliabideetako Kudeaketa eta Antolaketako Sailaren Zuzendaritzak edo hura ordezkatzeko duen pertsonak, kasu bakoitzari dagokion Saileko Zuzendaritzak edo hura ordezkatzeko duenak, Prebentzio Zerbitzuko bi pertsonak eta prebentzioko bi ordezkariak.

## **Erregistroa eta informazioa**

Kolektibo eta lanpostu guztietan, eta hierarkiako maila guztietan, indarkeria prebenitu behar da.

Beraz, langile guztien ardura da, ezarritako politika urratzen duen edozein gertakari badago, haren berri ematea, guztiok lanean giro seguru eta osasungarria izan ahal izateko.

Pertsona guztiek lagundu dezakete, lanean barneko indarkeriaren inguruan hautematen dutena jakitera emanda. Langile guztiei eskatzen zaie inguruan hauteman edo zuzenean nozitu dituzten indarkeria-egoerak erregistra ditzaten, Erregistro Orriaren bitartez. Orri hori, gero, Prebentzio Zerbitzuan aurkeztu beharko dute.

Erregistratzen den informazio guztia bizkor ikertuko da, eta konfidentzialki gorde, ezarritako prozeduren arabera.

## **Trebakuntza programak**

Laneko barneko indarkeria prebenitzeko konpromisoaren barruan, Bilboko Udalak trebakuntza- eta informazio-programak ezarriko ditu langileentzat.

## **Komunikazioa**

Aipatutako Politika interesa duten alde guztiei ezagutarazi behar zaie, eta, gainera, adierazpen instituzional bat bidali behar zaie idatziz. Halaber, buruzagiak, tarteko agintariak eta langileak oro har sentsibilizatzeko ekimenak martxan jarri beharko dira.

## **Bermeak**

Protokolo honetan jasotzen den prozeduran parte hartu duen pertsona orori sekretu-betebeharra eskatuko zaio, eta intimitaterako eskubidea bermatuko da. Halaber, prozedura horretan sortzen den informazio pertsonala Datuak Babesteko Legeak ezarritakoaren arabera tratatuko dela bermatuko da.

Langileek laneko arriskuen aurrean babesa jasotzeko eskubidea dute, eta, horregatik, Udal honek behar diren neurriak hartuko ditu, Udalaren barruan barneko indarkeria nozitu duten pertsonen osasuna behar bezala babesteko.

Bilboko Udalak ziurtatuko du lekuko gisa parte hartzen dutenek edo informazioa ematen dutenek ez dutela intimidaziorik, jazarpenik, bazterketarik edo ondorio kaltegarriarik nozituko. Halako zerbait gertatzen bada, diziiplina-arazotzat hartuko da.

Halaber, Udalak bermatu egingo du, kasu guztietan, prozeduraren faseak garatu egingo direla, behin protokoloa aktibatzen bada.

# Barneko indarkeriako Gertakari batean nola jokatu jakiteko prozedura


Langileek nozitu dituzten barneko indarkeriako gertakariak jakinarazi eta ikertu, eta egin beharrekoa egitea da prozedura honen helburua. Hala, indarkeriako egoera horien jatorriak identifikatu ahal izango dira, prebentziorako neurriak proposatu, eta prebentziorako kultura sustatu.

1. Ustez kaltetua izan den pertsonak edo pertsona taldeak Bilboko Udal Erakundearen Prebentzio Zerbitzu Mankomunatura jo beharko du (San Bizente kalea 4, 3. solairua; telefonoa: 94 420 59 05/38; [prevencionrl@ayto.bilbao.net](mailto:prevencionrl@ayto.bilbao.net)), eta han aurkeztu ahal izango du Gertakariaren Erregistro Orria.
2. Prebentzio Zerbitzuak, gehienez ere Gertakariaren Erregistro Orria jaso eta **hiru egun** baliioduneko epean, jakinarazi egingo dio kasu bakoitzari dagokion Saileko Zuzendaritzari, hark lehenbailehen ebazpen-neurriak har ditzan.
3. Kasu bakoitzari dagokion Saileko Zuzendaritzak, Prebentzio Zerbitzuak eskatzen dionetik gehienez ere bi eguneko epean, Zerbitzu horren laguntzarekin, egoera konpontzeaz arduratuko den pertsona izendatuko du.
4. Izendatutako pertsonak, Bilboko Udalaren barruko zein kanpoko pertsona izan, gehienez ere **bost eguneko** epean egin beharko ditu egitekoak, izendapena egiten den egunetik zenbatzen hasita, justifikatutako salbuespenetan izan ezik. Kasu bakoitzari dagokion Sailari zuzenduko zaion txosten batean azalduko da haren lana, eta txosten horren kopia bat emango zaio Prebentzio Zerbitzuari.
5. Lan horrek emaitza positiboak ematen baditu, Prebentzio Zerbitzua, kasuaren jarraipena egiteko, prozesua abian jarri duen pertsona edo taldearekin harremanetan jarriko da, kasu bakoitzari dagozkion ekintzak gauzatu eta **hilabetera**. Beste indarkeria-gertakaririk izan ez bada, kasuaren jarraipena egiten jarraituko du azken komunikazioa egin denetik **hiru eta sei hilabetera**.
6. Dena dela, lan horrek emaitzarik ekarri ez badu, hori egiaztatzen denetik hasita gehienez ere **egun bateko** epean, Prebentzio Zerbitzuak kasu bakoitzari dagokion Saileko Zuzendaritzari eskatuko dio gehienez ere **bi eguneko** epean Ebaluazio Batzordea eratu dadin. Batzorde hori osatuko dute Giza Baliabideen Antolakuntza eta Kudeaketa Saileko Zuzendaritzak edo hark izendatutako pertsona batek, kasu bakoitzari dagokion Saileko Zuzendaritzak edo haren ordezkari batek, Prebentzio Zerbitzuko bi pertsonak eta prebentzioko bi ordezkariak.

Batzorde horrek kasua ikertuko du, eta lehen bileratik hasita gehienez ere **zazpi eguneko** epean ezarri beharko diren neurriak proposatuko ditu.

(\*) Egoera konpontzeko lanean ardura izango duen pertsonaren izendapena eta Ebaluazio Batzordearen eraketa jakinarazi egingo zaizkie alderdiei; errekusatze edo abstentziorako aukera egongo da, eta prozeduran parte hartzen duten pertsona guztiek baliatu ahal izango dituzte aukera horiek.

(\*\*) Gertakariak egiaztatzea ezinezkoa denean, salatzaileak ez du inolako kalterik nozituko; alabaina, modu erabat sinesgarrian haren akusazioak faltsuak direla egiaztatuko balitz, diziplina-espedientea abiaraziko da.



# Barneko indarkeriako Gertakariaren Erregistroa

## Nola bete jakiteko argibideak (\*)

Langileek nozitu dituzten barneko indarkeriako gertakariak jakinarazi eta ikertu, eta egin beharrekoa egitea da prozedura honen helburua. Hala, indarkeriako egoera horien jatorriak identifikatu ahal izango dira, prebentziorako neurriak proposatu, eta prebentziorako kultura sustatu.

Laneko indarkeriatzat hartzen dira, eraso fisikoez gain, ahozko, idatzizko edo keinu bidezko jokabideak, baldin eta langileak errespetatzen ez badituzte, haiek aintzat ez hartu, gaizki tratatu, umiliatu, intimidatu, iraindu, mehatxatu edo jazarpena eragiten badiete. Halaber, indarkeriatzat hartzen dira jokabide jakin batzuk, haien helburua norbait sozialki bakartzea bada, edo haren izen ona, profesionala zein pertsonala, zuzenean edo erabiltzaileen bitartez zikintzea, edo lankideei sexualki edo sexu-arrazoiengatik eraso egitea.

1. Gertakarien Erregistroa betetzeko orria Atarian egongo da, edo Sail bakoitzak horretarako jarriko duen tokian.
2. Gertakariaren Erregistro Orria kaltetuak bete beharko du, gertakaria izan eta ahalik eta lasterren. Ezin badu, langileen ordezkari batek edo prebentzioko ordezkari batek bete beharko du, edo lekuko izan den lankide batek.
3. Gertakariaren Erregistro Orria, beteta, Bilboko Udal Erakundearen Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuan aurkeztuko da (San Bizente kalea 4, 3. solairua; telefonoa.: 94 420 59 05/38; [prevencionrl@ayto. bilbao. net](mailto:prevencionrl@ayto.bilbao.net)).

(\*) Erregistro horretan eta hark izan litzakeen eranskinetan informazio konfidentziala egon liteke. Horretarako izendatu diren pertsonen gain, gainerakoek debekatuta dute informazio hori eskuratzea.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, jakinarazten zaizu erregistro-orri honen bitartez jasotzen diren datuak, gero, Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuaren fitxategi batean sartuko direla.

Titularrak baimena ematen du, berariaz, datu horiek tratatzeko, jasotzen diren helburuetarako baldin bada.

Sarbidea izan, zuzendu, ezeztatu eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dira, eta, horretarako, Prebentzio Zerbitzu Mankomunatura jo beharko da.

## Barneko indarkeriako Gertakarien Erregistro Orria

EGUNA:	
ESKATZAILEAREN DATUAK	
Abizenak eta izena:	
Lanpostua:	
Harreman etarako datuak:	Telefonoa: <span style="margin-left: 150px;">Helbide elektronikoa:</span>
GERTATUTAKOAREN DESKRIBAPENA	
Eskatzailearen sinadura:	
Prebentzio Zerbitzuak jasoak:	